

MASTERRA BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASKUNTZAN

AURREINSKRIPZIOA ETA ONARPENA.....	1
ZER DA MASTERRA BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASKUNTZAN?	1
ZER TITULAZIO DA BEHARREZKOA SARTZEKO?	1
NOIZ ETA NOLA EGIN DEZAKET AURRETIKO IZEN-EMATEA?	1
AURRETIKO IZENA EMATEKO AUKERA BADAUKAT, UNIBERTSITATEKO TITULURIK EZ BALDIN BADAUKAT?	2
ATZERRIKO HIZKUNTZA BATEN B1 MAILA EGIAZTATU BEHAR DUT?	2
ZEIN DIRA AUKERATZEKO IRIZPIDEAK?.....	2
BADAUKAT SARTZEKO AUKERARIK IRAKASLE GRADUAREKIN?.....	2
BADAUKAT SARTZEKO AUKERARIK ATZERRIKO TITULU BATEKIN?	3
ZEIN DA MASTERREKO KOMUNIKAZIO HIZKUNTZA?	3
NAHITAEZKOA DA ESKOLETARA JOATEA?	3
BEREZITASUNAK	3
ZENBAT IKASPOSTU DITU ESPEZIALITATE BAKOITZAK?	3
ESKA DEZAKET AURREINSKRIPZIOA 2 BEREZITASUNETAN?.....	4
IRAKASLETZAKO GRADUAREKIN ETA INGELESEKO C1EKIN, INGELESEKO ESPEZIALITATEAN SARTZEKO AUKERA IZANGO NUKE?	4
GRADU BATEKIN ETA INGELESEKO C1EKIN, ZUZENEAN SARTUKO NAIZ INGELESEAN?.....	4
INGENIARITZA TEKNIKO BATEKIN GEHI MASTER OFIZIAL BATEKIN, EDOZEIN ESPEZIALITATEAN SARTZEKO AUKERA DAUKAT?	4
ETA NIRE INGENIARITZA TEKNIKOA MECES MAILAREKIN BALIOKIDETUTA BALDIN BADAUKAT?.....	5
FILOSOFIAKO LIZENTZIATURA BATEKIN, GEOGRAFIA ETA HISTORIAN SARTZEKO AUKERA IZANGO NUKE?.....	5
ZER DA EDUKIEN PROBA?	5
GOI MAILAKO INGENIARI BATEK MATEMATIKA ESPEZIALITATEAN SARTZEKO AUKERA IZANGO LUKE?	5
ARKITEKTOA, KIMIKARIA EDO BIOLOGOA NAIZ. SAR AL NINTEKE MATEMATIKAKO BEREZITASUNEAN?	6
GIZARTE LANGILE BATEK, ZEIN ESPEZIALITATE HAUTATZEKO AUKERA DU? ETA LAN HARREMANETAKO DIPLOMADUN BATEK?	6
PRAKTIKAK ETA IRTEERA PROFESIONALAK	6
ZERTAN DAUTZA PRAKTIKAK? NON ETA NOIZ EGIN BEHARKO DITUT PRAKTIKAK?.....	6
ESKA DAITEKE ESPERIENTZIA PRAKTIKOAREN ORDUEN ERREKONUZIMENDUA?	6
NOLA ETA NOIZ ESKATU ERREKONUZIMENDUA?	7
BADAUKAT OPOSIZIOETARA AURKEZTEKO AUKERARIK EGIN DUDANA EZ DEN BESTE ESPEZIALITATE BATEAN? 7	
MASTERRA DAUKAN DIPLOMADUN EDO INGENIARI TEKNIKO BATEK EMAN DITZAKE ESKOLAK BIGARREN HEZKUNTZAN? 7	
MASTERRAK DOKTORETZARAKO SARBIDEA EMATEN DU?	7

MASTERRA BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASKUNTZAN

MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK

AURREINSKRIPZIOA ETA ONARPENA

Zer da masterra bigarren hezkuntzako irakaskuntzan?

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duen unibertsitateko titulu ofiziala da, eta irakaskuntzan aritzeko beharrezkoa den prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa ematen du. Ikasketa planak parte orokor bat dauka, psikopedagogikoa, (14 ECTS), espezializazioko beste parte bat (30 ECTS) eta praktiketako eta Master Amaierako Laneko 16 ECTS. Ikusi [web-orriko Sarbide eta Onarpen](#) ataleko sarbide eta espezialitateei buruzko titulazioen taula.

Zer titulazio da beharrezkoa sartzeko?

Lizentziadun, ingeniari, arkitekto edo gradu titulua edukitzea nahitaezkoa da. Sartzeko aukera izango dute, halaber, diplomadun, arkitekto eta ingeniari teknikoek irakaskuntza emateko Erdi Mailako Graduko Lanbide Heziketan, Teknologia eta Administrazioa eta Enpresen Kudeaketa espezialitateetan.

Tituludun atzerritarrek sartzeko, titulu homologatua eduki behar dute.

Begiratu “Sarbidea eta onarpena” atalean, espezialitate bakoitzeko sarbide irizpideak.

Noiz eta nola egin dezaket aurretiko izen-ematea?

Master guztietan bezala, bi [aurreinskripzio](#) epe daude eta salbuespen gisa, Masterreko Irakaskuntza Batzordeak onesten badu, hirugarren epe bat egon liteke irail amaieran.

Interneten bidez egiten da, eta, horretaz gainera, honako hauek aurkeztu behar dira:
[dokumentazioa](#)

Aurretik izena emateko aukera badaukat, unibertsitateko titulurik ez baldin badaukat?

Masterrera sarbidea ematen duen unibertsitateko titulua aurkezten ez baduzu, aukeraketa prozesutik baztertuko zaituzte. Unibertsitateak ez du onartuko aurretiko izen-ematea egiteko epean titulua eta unibertsitateko tituluaren notak aurkezten ez dituen ezein ikasle.

Atzerriko hizkuntza baten B1 maila egiaztatu behar dut?

Masterrean onartua izateko nahitaezkoa da B1 maila edo handiagoa duzula egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztea, ingeleseko espezialitateko izan ezik, zeinean C1 maila duzula egiaztatu behar baituzu.

B1 maila edo handiagoa duzula honela egiaztatuko da:

1. Hizkuntza mailen [aitorpen taulan](#) jasotzen diren ziurtagiriak.
2. [Graduetako hizkuntza gaitasuna](#) egiaztatzeko NUPen ezarritako bitartekoetako baten bidez.

Halaber, onartzen da ingelesez, frantsesez, alemanez edo italieraz mintzatzen diren herrialde batean unibertsitateko titulua eskuratu dutenek C1 maila daukatela ikasketak egiten dituzten hizkuntzan. Horrela, ikasle horiek ez dute ziurtagiri gehigarririk aurkeztu beharko.

Zein dira aukeratzeko irizpideak?

Masterreko Irakaskuntza Batzordeak du azken hitza ikasleen onarpenari buruz. Espezialitate bakoitzean, irizpide hauek ezartzen dira hierarkian:

- Izangaiek beren jatorri titulazioaren arabera ordenatuko dira, eta jatorrizko titulazio baliokideetarako, ikasketa-espeditatearen arabera. Ikusi masterrera sarbidea ematen duten [Titulazioen orientabide taula](#).
- Jatorrizko titulazioak ez badu espezialitate batean zuzenean sartzeko aukerarik ematen, izangaia egokia dela erabakiko da, gutxienez ere espezialitateko gaietako 60 kreditu egiaztatzen baditu.
- Aurreko bi irizpideak betetzen ez dituzten izangaiek espezialitatearen arabera sartzeko edukiei buruzko proba bat egiteko aukera izango dute. Irizpide hori aurretiko izena emateko 2. aldian erabiliko da bakarrik.

Badaukat sartzeko aukerarik Irakasle Graduarekin?

Egin nahi duzun espezialitateko edukien proba egin behar duzu nahitaez. Gogoratu espezialitatearen kideko titulazioetan graduatuak lehentasuna dutela onartuak izateko.

Bestalde, postuaren titulartasuna lortu ezean eta, beraz, behin-behinekoen zerrendan geratuz gero, gomendagarria litzateke Ministerioan edo Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailean kontsulta egitea zein egoeratan gelditzen zaren argitzeko.

Badaukat sartzeko aukerarik atzerriko titulu batekin?

Tituludun atzerritarrek sartzeko, titulu homologatua eduki behar dute.

Zein da masterreko komunikazio hizkuntza?

Gaztelania izango da prestakuntza prozesuko komunikazio hizkuntza. Nolanahi ere, bloke generikoan, ikasleak gaztelaniaren eta euskararen artean hautatzeko aukera izango du. Halaber, ingeleseko esparru batzuekin ("Ikaskuntza integratua edukietan eta ingelesean") lotutako aukerako irakasgai bat dago.

Euskaraz Modulu orokorra eta II. Practicuma egiteko aukera dago bakarrik. Horretaz gainera, dagoen ikaspostu kopuruari erreparatuz, saiatzen gara ikasleek II. Practicuma ere euskaraz egiteko aukera izan dezaten.

Ingeleseko espezialitatean, bai I. eta II. Practicumak, bai master amaierako lana ingelesez egiten dira.

Nahitaezkoa da eskoletara joatea?

Bai, nahitaezkoa da eskoletara joatea, masterra presentziala delako.

BEREZITASUNAK

Zenbat ikaspostu ditu espezialitate bakoitzak?

Masterrak 120 ikaspostu ditu osotara. Ikasturte bakoitzean dagoen eskaeraren arabera, ikaspostu horiek espezialitateen artean banatzen dira, eta batez beste 10 ikaspostu daude.

Eska dezaket aurreinskripzioa 2 berezitasunetan?

Master honek izaera espezialista dauka, eta, beraz, espezialitateko irakasgai guztiak egin behar dira. Kontuan izan behar da bi espezialitate eskuratzeko bi ikasturte beharko direla.

Gaur egungo egoeran eta azken hitza unibertsitateek ez, baizik eta autonomia erkidegoetako Hezkuntza Departamentuek badaukate ere, ez dirudi irakaslanean hasteko masterreko espezialitate zehatz bat eskatuko denik, baizik eta masterra gainditzea.

Irakasletzako Graduarekin eta ingeleseko C1ekin, ingeleseko espezialitatean sartzeko aukera izango nuke?

Ez zenuke zuzenean sartzeko aukera izango, edukien proba gainditu beharko zenuke. Ingeleseko espezialitatean sartzeko betekizun bat da C1 maila, eta ez du izangaia salbuesten onarpen prozesua parte hartzetik. Hala, espezialitate honetan lehentasun hurrenkera honi jarraitzen zaio:

1. Gradua edo lizentziatura Ingeles Filologian.
2. Gradua edo lizentziatura Itzulpen gintza eta Interpretazioan (ingelese).
3. Gradua, lizentziatura, ingeniari-tza edo arkitektura, eta Ingeles Filologian 60 kreditu + ingeleseko C1 egiaztatu behar dira.
4. Gradua, lizentziatura, ingeniari-tza edo arkitektura, eta edukien proba gainditu behar da + ingeleseko C1. (Irizpide honek aurretiko izen-ematearen 2. aldirako balio du bakarrik).

Irakasletzako graduatuak 4. taldekoak dira.

Bestalde, gomendagarria litzateke Ministerioaren edo Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuan galdetzea, Irakasletzako Graduatu tituluarekin eta Bigarren Hezkuntzako Prestakuntzako Masterrarekin bigarren hezkuntzako ikaspostu batean sartzeko aukerarik izango zenukeen.

Gradu batekin eta ingeleseko C1ekin, zuzenean sartuko naiz Ingelesez?

Ingeleseko Espezialitatean sartzeko betekizun bat da C1 maila, eta ez du izangaia salbuesten onarpen prozesua parte hartzetik. Ikusi lehentasun irizpideak aurreko erantzunean.

Ingeniaritza tekniko batekin gehi master ofizial batekin, edozein espezialitateetan sartzeko aukera daukat?

Masterrean onartua izateko, Ingeniaritza Teknikoa hartuko da kontuan bakarrik, zeinak Teknologiako edo Enpresen Ekonomia-Administrazioko (LHI) espezialitateetarako ikaspostuak eskatzeko aukera ematen baitizu. Masterrean ingeniari-tza tekniko baten bidez sartzeko zarenaz,

ez duzu DBHko eta Batxillergoko irakaslea izateko aukerarik izango, master ofizial bat badaukazu ere. Beti izango duzu gradu baterako egokitzapena egiteko aukera, Bigarren Hezkuntzako (LHI, LHII, DBH eta Batxilergoa) irakaskuntzan mugarik gabe sartzeko.

Eta nire ingeniari tekniko MECES mailarekin baliokidetuta baldin badaukat?

Ingeniaritza teknikoak masterrean sartzeko aukera ematen du, baina Erdi Mailako Lanbide Heziketako (LHI) espezialitate batzuetan bakarrik. Ingeniaritza tekniko bat MECES 2 mailarekin baliokidetzeak ez dakar Graduaren aitortzea. Graduatua izateko, dagokion egokitzapen ikastaroa egin beharko duzu.

967/2014 Errege Dekretuak, unibertsitateko titulu ofiziala eta maila akademiko ofiziala izan daitezkeen homologatzeko eta baliokidetzak aitortzeko betebeharrak eta prozedura ezartzen dituenak, ezartzen du errege dekretu hori "ez dela aplikagarria Administrazio Publikoetan sartzeko eskatzen den titulazio erregimenean, zeina, edonola ere, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko 2007ko apirilaren 12ko 7/2007 Legeak eta aplikagarria den gainerako araudi espezifikoak arautuko baitute."

Filosofiako lizentziatura batekin, Geografia eta Historian sartzeko aukera izango nuke?

Masterrean sartzeko 3 bide daude:

1. Titulazio espezifikoa.
2. Espezialitateko 60 ECTS gutxienez ere.
3. Edukien proba.

Zure titulazioa espezifikoa ez denez, 2. eta 3. bideez baliatuz sartzeko aukera izango zenuke. Edukien probari buruzko informazioa eskuragarri dago Masterraren web-orrialdean.

Zer da edukien proba?

Edukien probari buruzko informazioa eskuragarri dago Masterraren web-orrialdeko "Sarbidea eta onarpena" atalean.

Goi mailako ingeniari batek Matematika espezialitatean sartzeko aukera izango luke?

Bai, zuzenean, gauza bera gertatzen da Ingeniaritza Gradu bat edukiko balu.

Arkitektoa, Kimikaria edo Biologoa naiz. Sar al ninteke Matematikako berezitasunean?

Bai, baina edukien proba gainditu beharko duzu.

Gizarte langile batek, zein espezialitate hautatzeko aukera du? Eta Lan Harremanetako diplomadun batek?

NUPen ez dago gizarte langileei zuzendutako ezein espezialitate. Hori dela-eta beste unibertsitate batzuetan galdetu beharko zenuke, zein espezialitate ematen dituzten. Bestela, zure interesekoa den espezialitateko edukien proba egin beharko zenuke.

Lan Harremanetako Diplomatura baldin badaukazu, Prestakuntza eta Lan Orientazioa espezialitatea egiteko aukera duzu, baina ez da unibertsitate honetan ematen. Bestela, Enpresen Administrazio eta Kudeaketako edo Teknologiako espezialitateko edukien proba egin beharko zenuke.

PRAKTIKAK ETA IRTEERA PROFESIONALAK

Zertan dautza praktikak? Non eta noiz egin beharko ditut praktikak?

Praktikak egitean hainbat jarduera mota garatuko dira, guztiak ere irakasle taldeek adierazitakoak. Practicum egiteari eskainitako ECTS kopurua 10 da guztira, 2 irakasgaitan banaturik: Practicum I (3 ECTS), lehen seihilekoan egiten dena, eta Practicum II (7 ECTS), bigarren seihilekoan egiten dena.

Practicum I lehen hurbilketa da lanbide jarduerarako eta ikaslea ikastetxe batean testuinguratzea du xede (hainbat jarduera egiten dira, hala nola hezkuntza errealitatearekin harremanetan sartzea, ikastetxeko testuingurua deskribatzea, legeria bilatu eta aztertzea, ikastetxearen dinamika funtzionala, metodologikoa eta antolaketa dinamika aztertzea, ikastetxean jarduerak behatzea, etab.).

Practicum II-ek prestakuntza praktikoa handitzen du, baina era berariazkoago batez ikasleak aukeratu duen Berezitasunaren barruan.

Sare publikoko edo itunduko ikastetxe batean, Masterraren egutegi barruan ezartzen den praktika epealdian. Orientazio gisa, ikasturte honetan egindako proposamena berrikus daiteke, webgunean eskura baitago.

Eska daiteke Esperientzia Praktikoaren orduen errekonozimendua?

Soilik eska daiteke Practicum I-aren errekonozimendua.

Nola eta noiz eskatu errekonozimendua?

Behin Masterrean onartzen zaituztenean, Unibertsitateak berriaz horretarako ezartzen duen kronograma orokorrarekin bat.

Badaukat oposizioetara aurkezteko aukerarik egin dudana ez den beste espezialitate batean?

Oposizioetarako deialdia egiten duen autonomia-erkidegoko Hezkuntza Sailean eskatu edo oposizioaren deialdiaren oinarrietan bilatu behar duzu informazio hori. Deialdi hauetan "Bigarren Hezkuntzako Irakasletzako Unibertsitateko Masterraren jabe izatea" jartzea da ohikoa, 70etik gora espezialitate dituen katalogo bat baitago eta ezein unibertsitatek ez ditu denak ezarri; hain zuzen, ezein unibertsitatek ez ditu ezarri espezialitate horietako asko. Hala, oposizioei eta lanbiderako sarbideari buruzko erabakiak autonomia erkidegoetako Hezkuntza Departamentuek hartzen badituzte ere, lanbiderako sarbidea masterreko espezialitatearen arabera ez dela mugatuko pentsatzea da "arrazoizkoa"; nolana ere, jatorrizko unibertsitateko titulazioaren arabera.

Masterra daukan diplomadun edo ingeniari tekniko batek eman ditzake eskolak bigarren hezkuntzan?

Diplomatura, ingeniaritza tekniko edo arkitektura tekniko baten bidez masterrean sartzen diren tituludunek ez dute, araudi indardunaren arabera, DBH eta Batxilergoko irakasleak izateko aukera, baina bai Erdi Mailako Prestakuntza Zikloetan (Lanbide Heziketa). Ikusi espezialitateetan sartzeko titulazioen koadroa

Bigarren hezkuntzako irakasle baten lanpostura murrizketarik gabe sartu nahi baduzue, zuen titulua nahitaez egokitu beharko duzue gradu batera Master honena ez den beste bide batetik.

Masterrak doktoretzarako sarbidea ematen du?

Doktoretza programa bakoitzeko sarbide-irizpideak zein diren ikusi behar da. Hori dela-eta, egin nahi duzun programako arduradunei galdetzea litzateke egokiena.

Nolanahi ere, doktoretza esparru jakin batean egin nahi baduzu, Bigarren Hezkuntzako masterra esparru horretan egitea da normalena; bestela, baliteke prestakuntza osagarria eskatzea, eta egin nahi duzun doktoretzako master gehigarri espezifiko oso bat egin behar izatea.

Aitzitik, egin nahi duzun doktoretzarekin lotutako esparru batean egiten baduzu Irakasletzako Masterra, baliteke zuzenean onartua izatea edo kreditu kopuru jakin bateko (6, 12, 18...) prestakuntza gehigarria eskatzea esparru jakin batean.